

Nere oharrak idazten ditut,
bigarren urrats honen ondotik:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2. urratsa

nor da

Izpiritu

Saïndua ?



mendekoste




Apostoluen
Egintzak 2,1

Mendekoste-eguna etorri zenean, toki berean bildurik zauden guziak. Bat-batean, arrabotsa izan zen zerutik, haize azkar baten ufa iduria, eta heiek zauden etxe guzia bete zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzu zatitzen ikusi zituzten, eta bakotxaren gainean bana finkatzen. Denak Izpiritu Sainduaz bete ziren, eta beste hizkuntza batzutan mintzatzen hasi, bakotxa Izpirituak emaiten zion gisara.



Hizkiak nahasiak dira...




- Erakusten dauku nor den Jainkoa.

Infrentzuz edo alderantziz, ea irakurtuko duzun hitz hau ?

eztaze

- Zientzia edo : ikusten dut Jainkoa kreaioan, bizian, denetan. Zein handia den Jainkoa !





Animale bakoitzaren lehen hizkia (letra) idatz ezazu laukietan.

Bi hizkietarik bat marra ezazu
hitz gordea irakurtzeko:
**jhazienkkomairtesny
bdexltdmuirz
sealiknjdeuza**

- Jainkoa errespetu handi batekin ikusten dut, gaizkiatik urruntzen naiz.

Braille alfabetoa erabil ezazu, hitz gordea irakurtzeko



- Jainkoaren maitasunari erantzun nahi diogu.

Margo itzazu **izpiritua** hitzaren letra guziak:
hitz gordea agertuko zaizu... **i, z, p,...** margo itzazu

m	d	s	i	h	d	m	h	l	h	l	m	d	o	o	b	h	m	g	s	b	k	k	m	m	s	g	l	l	m	l	l	l	k	g	s	g	h	
b	k	l	s	d	h	s	e	b	g	l	g	l	k	s	s	o	e	e	k	g	p	k	h	h	e	s	l	h	k	d	e	b	k	l	m	e	h	d
g	l	z	i	k	b	b	g	r	h	o	z	r	g	o	k	s	p	p	a	s	u	g	d	e	i	z	i	h	e	m	g	i	k	i	i	d	k	h
b	k	h	p	k	k	g	e	i	t	e	b	a	d	k	t	e	o	s	r	l	e	k	g	b	l	z	b	o	e	p	a	o	d	g	u	h		
l	o	g	i	s	s	o	g	h	t	g	o	k	r	s	h	a	o	s	s	b	r	k	s	l	u	i	r	k	e	b	o	i	m	s	g	h	e	e
m	l	h	t	l	h	s	o	s	i	l	d	h	i	e	e	i	g	h	s	i	u	d	d	z	l	g	o	a	e	h	m	p	e	h	h	k	h	o
e	h	a	i	r	b	d	s	k	t	o	h	k	i	d	k	k	z	i	t	h	a	s	l	b	p	a	t	o	r	l	s	i	k	e	k	s	m	h
s	g	b	g	h	g	k	h	b	e	k	e	l	k	o	d	m	l	b	h	g	e	m	e	o	h	m	s	g	k	d	d	o	b	e	l	e		

- Kuraia, bertutea ematen dauku, Jainkoak nahi duen bezala aritzeko.

a = b, b = c, c = d,... z = a.

kbjolphabmfvb



- Jainkoari gure bizia eskaini nahi diogu.



Apostoluen Egintzak

Eg 1, 8

Bainan gainerat jautsiko zaizuen Izpiritu Sainduaren indarra ukanen duzue, eta nere lekuko izanen zirezte Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren bazterreraino .



Nik Aita otoiztuko dut eta beste Laguntzaile bat emanen dauzue, betiko zuekin izanen dena, egia den Izpiritua. Munduak ezin dio ongi etorri egin, ez baitu ikusten, ez ezagutzen; bainan zuek ezagutzen duzue, zuekin baitago eta zuen baitan. Joani 14, 16-17

Aitak Laguntzailea, Izpiritu Saindua, igorriko dauzue nere izenean, eta harek dena irakatsiko dauzue eta nik erran guzia oroitaraziko. Joani 14, 26

nor da izpiritu saindua ?

Izpiritu Saindua Jainkoa da

Aita Jainkoa den bezala
eta Jesus Jainkoa den bezala
Aita eta Semearen arteko
maitasuna da.



Izpiritu Sainduak du k.....
munduaren hasieratik.

Izpiritu Saindua da mintzatu
p..... ahoz.

Izpiritu Sainduari esker
M..... Jesusen ama izan da.

Izpiritu Saindua da, Jordan ibaian,
J..... gainean jautsi, bataio egunean.

Izpiritu Sainduak ditu apostoluak lasaitu eta askatu
M..... egunean.

Izpiritu Sainduak dio
E..... jainkotasuna ekartzen.

Izpiritu Sainduari esker
ni naiz J..... etxea.

Zazpi dohainak :

Zuhurtzia: Jainkoarekin bat egiteko, Hura bizi dadin
zure baitan eta zurekin.

Adimendua: zure laguntzeko, fedearen misterioak
argitzeko eta barnetik ulertzeko, aditzeko.

Zientzia: ongia eta gaizkia ongi bereizteko, hautatzeko
zer den eta zer ez den ongi, gertakariak jujatzeko
Jainkoak egiten duen bezala

Aholkua: Jainkoaren argiak ikusteko, eginbidea
ezagutzeko, jokamolde egokia hartzeko.

Indarra: leialtasunean aitzina jarraitzeko, oztopo
guziak gainditzeko, azkarra izateko.

Jainkozaletasuna: jainkoa eta ondokoak maitatzeko,
haur ezti batek bezala, amultsuki eta xinpleki.

Jainkoaren beldur saindua, errespetua:
Jainkoa laidoztatzen delarik, ofentsatzen delarik,
errespetu handia sortzeko, bekatuaren gatik ez
urruntzeko.

IZPIRITU SAINDUAREN DOHAINAK. ZER EGITEKO ?

Jesus iduria izateko

Jesusen lagunak izan nahi dugu, haren adixkide izateko, Izpirituak azkartuko zaitu.

Leiala eta zintzoa baldin bazira, emeki emeki, Izpiritu Saindua hats hartze bat izango da zuretzat.

Ongia egiteko ahalmenak, bizia ongi eremateko gaitasuna, horiek oro dira Izpirituaren dohainak.

Elizak zazpi dohain zenbatu ditu.



NOLAKOA DA IZPIRITU SAINDUA ?



EZ dakigu.

Nehork ez du
Izpiritu Saindua ikusi.

(Youcat S48)

Bainan Biblia irakurtuz, ezagutzen ahal dugu, bere egintzetan: Izpiritu Sainduak jakinarazten du, kontsokratzen du, erematen gaitu, azkartzen du, gidatzen du, garbitzen du, bizi arazten du.

Sinesten dut otoitzan aldarrikatzen dugu :

Sinesten dit Izpiritu Saindua, Jaun eta bizi emaila Aitarekin eta Semearekin batean, agur eta goresmen berbera hartzen duena, eta Profeten ahoz hitz egin zuena.

IZPIRITU SAINDUAREN SINBOLOAK. IKURRAK

	ura	Jalgitza 1,2
	olioaren gantzundura	1 Samuel 16,13
	sua	Luk 12, 49
	zigilua	Efesoarreri 4, 30
	eskuen gainean ezartzea	Egintzak 8, 17
	ursoa	Hasiera 8, 6-12 edo Mark 1, 10
	hodeia	Jalgitza 40, 38 edo Luk 1, 35
	hatsa edo haizea	Jalgitza 1, 2 edo Jn 20, 22

Oliadura edo gantzudura

Apezpikuak gantzutzen du konfirmatua izanen den gaztea : krisma saindua (olio saindua) ezartzen dio kopeta gainean, kurutze seinalea eginez eta eskuak buru gainean edo sorbalda gainean ezarriz.

Sendotza edo **konfirmazioa**, bataioko grazia osatu eta sendotzen duen sakramentua da.



« , har ezazu ezaugarri hunen bidez,
Izpiritu Sainduak, Jainkoaren dohaina. »

Krisma saindua olio eta usain gozoaren nahasketa bat da. Erabilia da bataioan, konfirmazioan eta ordena sakramenduan (apeztean).



Konfirmazioaren sakramenduaren bitartez, bataiatuek Elizarekin daukaten lotura osoagoa egiten da. Izpiritu Sainduaren zigiluaz markatuak dira.

Konfirmazio zeremoniaren denboran

Bi jestu nagusi egingen dira, ikusi ditugun sinboloekin :
Eskuak gainean ezartzea

Apezpikuak konfirmatuak izanen diren gainean eskuak zabaltzen ditu erranez :

« Jainko Jauna, Jesusen Aita, bataioaren bidez zure haurrak sor-arazi dituzu Izpirituaren bizi berrirat... Horien gainera jauts bedi zure Izpiritua, Jesusen gainera jautsi zen bezala. Jainkoaren dohainak ekar dadila : zuhurtziaren eta adimenaren izpiritua, aholku eta inadarraren izpiritua, seme-alaben amulutsutasuna eta goresmenaren izpiritua, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, bizi baita gizaldi eta gizaldietan. Amen.»



Izpiritu Saindua azalpena

Izpiritu Sainduak bizia ematen du, garbitzen du, bataioarekin berriz sortzen gira.

Kontsokratzen du, erran nahi du misio batentzat igortzen daukula, barnetik betetzen gaitu, eztitzen du.

Garbitzen du, erretzen du, aldatzen du eta maitasunaren garra ematen du.

Betrirako markatzen gaitu, zigelu ezabaezinarekin, betirako bereizten gaitu Jainkoarekin izateko.

Azkartzen du, igortzen du.

Berri ematen du, erakusten du.
Bakea ekartzen du, bihotz garbietan bizi da.

Gidatzen du, begiratzen du, zaintzen du.

Gainetik heldu da, aske da, libre, eramaten gaitu.

